

IZARRAK  
ERRUDUN

John Green

# 1. ATALA

Nire hamazazpigarren neguaren bukaeran, amak ondorioztatu zuen depresioak jota nengoela, segur aski ez nintzelako apenas etxetik ateratzen, denbora dezente pasatzen nuelako ohean, behin eta berriro irakurtzen nuelako liburu bera, nekez jaten nuelako ezer eta nire aisialdi luzearen puska eder bat heriotzari buruzko gogoetetan murgildurik igarotzen nuelako.

Minbiziari buruzko liburuxka bat edo webgune bat edo zernahi irakurtzen badugu, ohartuko gara beti sartzen dutela depresioa minbiziaren albo-ondorioen zerrendan. Baina, egia esateko, depresioa ez da minbiziaren albo-ondorioa; hiltzen egotearena baizik. (Tira, minbizia bera ere hiltzearen albo-ondorioa da. Ia dena bezala, egia esateko). Nolanahi ere, ama sinetsita zegoen tratamendua behar nuela. Hortaz, familiako medikuarenera eraman ninduen. Jim doktoreak baieztatu zion depresio sakon eta paralizatzaile batean hondoratua nengoela, medikazioa aldatu behar zidatela eta, gainera, astero joan beharko nuela elkar laguntzeko talde batera.

Laguntzeko taldea zen, funtsean, gaixotasun tumoraren estadio ezberdinetan zegoen antzezle-zerrenda aldakor bat. Eta zergatik zen, bada, aldakorra? Horra hor hiltzearen beste albo-ondorio bat.

Elkar laguntzeko taldea, nola ez, guztiz etsigarria zen. Asteazkenero bildu ohi zen gurutze forma zuen harrizko eliza episkopaliar bateko sotoan. Korroan esertzen ginen, hain juxtu gurutzearen erdi-erdian, zurezko bi oholek bat egingo zuketen tokian berean, Jesusen bihotza egongo zatekeen lekuan.

Horretaz jabetu nintzen; izan ere, Patrick, laguntzeko taldeko liderra eta gela hartan hemezortzi urtetik gorako bakarra, hitz eta pitz aritzen zen Jesusen bihotzari buruz bilera madarikatu bakoitzean; gu, zioen, minbiziaren biziraule gazteak ginen aldetik, hain juxtu, Kristoren bihotz sakratuan bertan omen geunden eserita, eta kalaka hori guztia.

Bada, honelaxe funtzionatzen genuen Jaungoikoaren bihotzean: oinez edo aulkiko gurrpilei eraginez iristen ginen taldetxoko sei, zazpi nahiz hamar lagunak, limonada eta gaileta sorta zahar batekin bazkatu, eta «konfiantzaren zirkuluan» esertzen ginen Patricki entzuteran; hark enegarren aldiz kontatuko zigun bere bizitzaren istorio zorigaiztoko eta depresiboa: potroetako minbizia izan zuela eta bere akabua zela uste zutela, baina azkenean ez zela hil, eta orain hemen zegoela bera, gizon umoa, eliza bateko sotoan, Estatu Batuetako hiririk ederrenen zerrendan 137. postua betetzen zuen hirian, dibortziatua, bideo-jokoen zale amorratua, ia lagunik gabea, bizibidea nekez lortzen zuena behin eta berriro ustiatuz iraganean minbiziarekin izandako esperientzia; bere lan aukerak hobetuko ez dituen master bat apurka-apurka ikasten, eta zain, gainerako guztiok bezala, Damoklesen ezpata gainera noiz eroriko, orain dela urte asko —minbiziak potroak in-

baditu eta arima oso eskuzabal batek bakarrik bizitza deituko lukeen hori utzi zionean— galdu zuen lasaitasuna eman diezaion.

ETA ZUEK ERE HORREN ZORIONEKOAK IZAN ZINTEZKETE!

Gero, aurkezpenak egiten genituen: izena, adina, diagnostikoa eta une hartan nola geunden. «Hazel naiz —esango nuen nire txanda iristean—. Hamasei urte. Hasieran, tiroidea, baina aspalditik dut metastasia biriketan. Eta oso ondo nago.»

Korro osoa eginda, Patrickek beti galdetzen zigun ea ba ote genuen besteekin partekatu nahi genuen zerbait. Eta orduantxe hasten zen taldea kanpai-joka: mundu guztia berriketan borroka eta batailei buruz, eta are irabazteaz, erortzeaz eta eskanerrak egiteaz. Patrickekin zintzoa izateko, esan beharra daukat heriotzari buruz ere hitz egiten uzten zigula, nahiz eta haietako gehienak ez ziren hiltzen ari. Gehientsuenak heldu izatera iritsiko ziren, Patrick bezala.

(Eta horrek esan nahi zuen norgehiagoka betean ari ginela; egiazki, denon nahia zen ez bakarrik minbizia garaitzea, baita gelako beste guztiak ere. Badakit zentzugarri bakoidea dela, baina demagun esaten dizutela, kasu bat jartzearen, ehuneko hogeiko aukera duzula bost urte bizitzeko. Orduan, matematika dator ate joka eta ohartzen zara hori bostetik bat dela... bada, ingurura begiratu, eta osasuntsu dagoen edonork pentsatuko lukeena pentsatzen duzu zuk ere: «Arraioa, lau txepel hauek baino gehiago irau behar dut!»).

Elkar laguntzeko taldearen gauza on bakarra Isaak zen, aurpegi luzeko mutiko argal bat, ile hori lisoa begi baten gainetik eroria eramaten zuena.

Eta begietan zuen, hain juxtu, arazoa. Begietako min-bizi arraro eta ezohiko bat zeukan. Begietako bat kendua zioten txikitan, eta orain, kristal lodiko betaurrekoak zera-matzan, begiak (biak, benetakoa eta kristalezkoa) izugarri handiak egiten zizkietenak, aurpegi osoan besterik ez balu bezala, adi-adi begiratzen zizuten gezurrezko begi hura eta benetako begia baino ez. Bere bizipenak taldekideekin partekatu zituen okasio bakan horietakoren batean ulertu nionez, gaixotasuna erreproduzitua zitzaion, begi ona arrisku bizian jarritz.

Isaak eta biok ia hasperenka bakarrik komunikatzen ginen. Baten bat minbiziaren kontrako dietak egiteaz edo marrazo-hegal ehoa esnifatzeaz edo antzekoez hizketan hasten zenean, Isaakek begiratua egiten zidan eta hasperen arin bat. Nik, orduan, burua modu mikroskopikoan mugitu, eta beste hasperen batekin erantzuten nion.

Bada, elkar laguntzeko taldea kalaka jasangaitza zenez, aste gutxi batzuen buruan, egundoko kasketaldia harrapatu nuen kontu hura zela eta. Berez, Augustus Waters eza-gutu nuen asteazken hartan, ahaleginak eta bi egin nituen laguntzeko taldetik libratzeko. Amarekin nengoen sofan eserita, *America's Next Top Model* ikusten, aurreko denboraldiko *reality show* horietako bat, modelo izan nahi duten neskei buruzkoa. Bada, hamabi orduko maratoi baten hirugarren etapan geunden, eta ikusia baneukan ere, ez zitzaidan axola.

Nik: Ez dut elkar laguntzeko taldera joan nahi.

Amak: Depresioaren sintometako bat da ezertan interesik ez izatea.

Nik: Utzidazu *reality*a ikusten, mesedez. Hori jarduera bat da.

Amak: Jarduera guztiz pasiboa.

Nik: Tira, ama, mesedez.

Amak: Hazel, nerabe bat zara. Dagoeneko ez zara ume mokoa. Lagunak egin behar dituzu, etxetik irten, eta zure bizitza bizi.

Nik: Nerabea izatea nahi baduzu, ez nazazu bidali laguntzeko taldera. Erosidazu NAN faltsu bat tabernetara joan, vodka edan eta porroak hartzeko.

Amak: Hasteko, porroak ez dira *hartz*en.

Nik: Ikusten? Dagoeneko jakingo nuke NAN faltsua lortu bazenit.

Amak: Elkar laguntzeko taldera joango zara.

Nik: AAAAAA!

Amak: Hazel, bizitza bat merezi duzu.

Isildu egin nintzen, konprenitzen ez banuen ere nola uztartzen ahal ziren laguntzeko taldea eta *bizitza*. Nolanahi ere, bilerara joatea onartu nuen, galduko nuen *reality*aren kapituluak grabatzeko eskubidea negoziatu ondotik, jakina.

Elkar laguntzeko taldera joaten baldin banintzen, zera-gatik zen: urte eta erdiko ikasketekin titulua eskuratu zuten erizainei izen exotikoko produktu kimikoekin pozoitzen uzteko arrazoi beragatik; gurasoak zoriontsu izatea nahi nuen. Mundu honetan gauza aluagorik baldin bada hama-sei urterekin minbizia diagnostikatzea baino, zure umeari minbizia diagnostikatzea da.

Amak eliza atzeko sarbide zirkularrean gelditu zuen autoa 16:56an. Oxigeno-bonbonarekin jolasean ibili nintzen une batez, denbora galtzea beste asmorik gabe.

—Neuk eramatea nahi al duzu?

—Ez, ondo da —erantzun nion.

Bonbona berdeak gutxi pisatzen zuen, eta metalezko orgatxo gurpilduna neukan, atzetik tiraka eramateko. Bi litro oxigeno bidaltzen zizkidan minutuko kanula baten bidez; alegia, hodi garden bat, lepoaldean bitan berezi, eta belarriak inguratuz sudur-zuloetan sartzen zitzaidana. Behar-beharrezkoa nuen tramankulu hura, nire birikek ez zutelako biriken lana egin nahi.

—Maite zaitut —esan zidan amak autotik irten nintzenean.

—Eta nik zu, ama. Seiak arte.

—Egin lagun berriak! —hots egin zuen leihatilatik urruntzen nintzen bitartean.

Ez nuen igogailua hartu nahi izan, zeren, laguntzeko taldean igogailua hartzeak esan nahi baitu azkenetan zaudela; horregatik, eskaileretatik jaitsi nintzen. Gaileta bat hartu, plastikozko baso bat limonadaz bete, eta jiratu egin nintzen.

Mutil batek adi-adi begiratzen zidan.

Ziur nintzen ez nuela aurretik ikusi. Garaia eta gihar-tsua zenez, eserita zegoen plastikozko eskola-aulkiak jostailuzkoa zirudien. Kaoba koloreko ilea zuen, leuna eta laburra. Nire adin bertsukoa ematen zuen, agian urtebete zaharragoa, eta ipurtxuntxurra aulkiaren ertzean zuela zegoen eserita, jarrera penagarri samarrean, esku bat galtza bakero ilunen poltsikoan erdi sartua zuela.

Beste alde batera begiratu nuen, bat-batean gogoratu bainintzen nire itxura negargarriaz. Bakero zahar batzuk neramatzan, garai batean estuak izandakoak, baina orain trakeski emanak zeudenak; kamiseta hori bat, jadanik gus-tatzen ez zitzaidan talde baten izenarekin, eta ileari zego-kionez, pajeen estiloan moztua neukan, baina orrazteko lanik ere ez nuen hartu. Gainera, masailak barregarriki han-patuak neuzkan, urtxintxa batek bezala, tratamenduaren albo-ondorioetako bat. Gorputz proportzionatuko pertso-na nintzen, burutzat puxika zeukana. Hain handituak neuz-kan orkatilak ez aipatzeagatik. Eta, hala eta guztiz ere, be-giratu bizkor batean ohartu nintzen begiak nigan iltzaturik jarraitzen zuela.

Neure buruari galdetu nion zergatik esaten ote zaion *begiz jotzea*.

Korroan sartu, eta Isaaken ondoan eseri nintzen, mu-tilarengandik bi eserlektara. Berriz ere begiratu nion. Niri so jarraitzen zuen.

Gauza bat esango dizuet: oso ona zegoen. Tipo zatar bat bada goitik behera begiratzen dizuna, kasurik hobe-renean, deseroso sentiarazten zaitu; eta okerreanean, eraso moduan ere bizi dezakezu. Baina ederra denean... tira.

Sakelakoa atera, eta tekla bat sakatu nuen ordua era-kusteko: 16:59. Korroa betez joan zen hamabitik hemezor-tzi urtera bitarteko nerabe zorigaiztokoekin, eta orduan, Patrickek hasiera eman zion bilerari lasaitasunaren otoitza-rekin: *Jauna, emadazu aldatu ezin dezakedana onartzeko lasaitasuna, alda dezakedana aldatzeko adorea, eta bien artean bereizteko jakituria*. Mutikoa oraindik ere begira neukan. Lotsaz gorritzen nintzela sentitu nuen.

Azkenean erabaki nuen begirada itzultzea izango zela estrategiarik hoberena. Izan ere, mutilek ez daukate begiraden monopolioa. Beraz, zorrotz begiratu nion, Patrickkek enegarrenez bere inpotentzia eta abar aitortzen zigun bitartean, eta berehala, begiraden norgehiagoka bihurtu zen. Tarte baten ostean, mutikoak irribarre egin, eta beste norabait zuzendu zituen bere begi urdinak. Berriz ere begiratu zidanean, bekainak jaso nituen, *neu irabazle* esanez bezala.

Sorbaldak jaso zituen. Patrickkek berearekin jarraitu zuen eta, noizbait, aurkezpenen tarte iritsi zen.

—Isaak, agian, zeuk hasi nahiko zenuke gaur. Jakin badakit une gogorra pasatzen ari zarela.

—Bai —erantzun zion Isaakek—. Isaak naiz eta hamazazpi urte dauzkat. Itxura guztien arabera, ebakuntza egin beharko didate aste pare baten buruan, eta horren ostean, itsu geratuko naiz. Ez naiz kexatzen, ezta hurrik ere, bai baitakit zuetako asko okerrago zaudetela; baina, zera, itsu geratzea kaka zaharra da. Neska-lagunak asko laguntzen dit, eta Augustus bezalako lagunek ere bai.

Buruaz seinalatu zuen mutikoa, orain izen bat bazue-na.

—Hortaz, laburbilduz —jarraitu zuen Isaakek bere eskuei begira, tolestuak baitzeuzkan tipi antzeko bat eratuz—, ezin da ezer egin.

—Zurekin gaude, Isaak —esan zion Patrickkek—. Tira, lagunok, esan diezaiogun Isaaki.

Eta, orduan, denok batera:

—Zurekin gaude, Isaak.

Michael izan zen hurrengoa. Hamabi urte zeuzkan, eta leuzemia. Betidanik izan zuen leuzemia. Ondo zegoen. (Hala zioen berak, baina igogailua hartua zuen).

Lida hamasei urteko beste neska bat zen, tipo ederraren begiradak erakartzeko bezain polita eta ohiko bilera-kidea. Aspalditik zegoen apendizeko minbizia baten erremisio-fasean. Nik ez nekien apendizeko minbizia existitzen zenik ere berak aipatu arte. Esan zuenez, laguntzeko taldera joan nintzen guztietan bezala, *indartsu* sentitzen omen zen, eta niri, oxigenoa askatzen zuten protuberantzia horiek sudurrean kili-kilika neuzkan honi, harropuzkeria galanta iruditu zitzaidan.

Beste bost lagunek hartu zuten hitza mutikoaren txanda iritsi aurretik. Irribarre arin bat egin zuen. Ahots lodia eta urratua zuen, oso *sexya*.

—Augustus Waters naiz —esan zuen—. Hamazazpi urte dauzkat. Osteosarkoma diagnostikatu zidaten orain dela urte eta erdi, baina Isaakek eskatu didalako bakarrik etorri naiz.

—Eta nola zaude? —galdetu zion Patrickkek.

—Oso ondo. —Irribarre oker bat egin zuen—. Gorantz baizik ez doan errusiar mendi batean nago, adiskidea.

Nire txanda iristean, honela mintzatu nintzen:

—Nire izena Hazel da eta hamasei urte dauzkat. Tiroideko minbizia, biriketara pasatu dena. Ondo nago.

Ordua azkar-azkar pasatu zen: borrokak kontatu ziren, zalantzarik gabe galduko zen gerra batean irabazitako batailak. Itxaropenari lotzen zitzaizkion bortizki; familiak aipatu ziren, onerako eta txarrerako; denak bat zetozen

esatean lagunek ez zutela ulertzen; malkoak isuri ziren, eta kontsolamendua banatu. Augustus Waters eta biok hitz erdi bat esan gabe egon ginen, harik eta Patrickek bide eman arte:

—Augustus, agian gustatuko litzaizuke zure beldurrak taldearekin partekatzea.

—Nire beldurrak?

—Bai.

—Ahaztua izateak beldurtzen nau —bota zuen berehala—. Horren beldur naiz, iluntasunaren beldur den itsua bezala.

—Ez aurreratu —Isaakek hartu zuen hitza, irribarrea ahoan.

—Bihozgabea izan al naiz? —galdetu zuen Augustusek—. Itsu samarra izan naiteke gainerakoen sentimenduekin.

Isaak barrezka zegoen, baina Patrickek hatz kargu-har-tzaile bat jaso zuen:

—Augustus, mesedez. Itzul gaitezen *zuregana* eta *zure* borrokara. Ahanzturak beldurtzen zaituela esan duzu, ezta?

—Horixe esan dut, bai —erantzun zion Augustusek.

Patrickek galduta zirudien.

—Bueno, norbaitek zerbait esan nahi al du horri buruz?

Hiru urte lehenago utzia nuen institutua. Gurasoak ziren nire bi lagunik onenak. Hirugarrena idazle bat zen, existitzen nintzenik ere ez zekiena. Nahiko lotsatia nintzen, eskua jasotzen ez duten horietakoa.

Baina, behingoagatik, hitz egitea erabaki nuen. Eskua apur bat altxatu nuen.

—Hazel! —esan zuen Patrickek berehala, poza ezin ezkutatuz.

Ziur naiz pentsatu zuela hasia nintzela irekitzen eta elkar laguntzeko taldeko partaide bihurtzen.

Augustus Watersi begiratu, eta berak begirada itzuli zidan. Bere begiak hain ziren urdinak, haietan zehar ikus baizenezakeen ia.

—Egunen batean —hasi nintzen—, hilik egongo gara denok. Den-denok. Egunen batean, ez da gizaki bakar bat ere geratuko noizbait norbait existitu zela edota noizbait gure espezieak ezer egin zuela gogoratuko duenik. Ez da egongo Aristoteles edo Kleopatra gogoratuko duenik, are gutxiago zuek. Egin, eraiki, idatzi, pentsatu eta aurkitu dugun guztia ahaztua izango da, eta honek guztiak —jarraitu nuen, eskuaz zirkulua seinaltatuz— ez du ezertarako balio izango. Baliteke hori laster izatea edo milioika urteren buruan; baina, eguzkiaren suntsiketarik bizirik irtengo bagina ere, ez dugu betiko iraungo. Organismoek kontzientzia garatu aurreko garai bat egon zen, eta egongo da horren ondokoa ere. Eta gizakia ezin saihestuzko ahanztura horretan erortzeak kezkatzen bazaitu, pentsamendu hori burutik kentzea gomendatzen dizut. Jainkoak badaki mundu guztiak egiten duela hori.

Gorago aipatutako hirugarren lagun minari ikasia nion hori, Peter Van Houteni alegia; *Samintasun inperiala* lanaren egile bakartia zen, nik Bibliaren parekotzat neukan liburua. Peter Van Houten zen aurkitu nuen pertsona

bakarra zeina: a) hiltzen egotea zer zen ulertzera iristen zen, eta b) ez zegoen hilda.

Bukatu nuenean, isiltasuna nagusitu zen denbora puska batean. Irribarre zabal-zabala ikusi nuen Augustusen aurpegian; ez tipo *sexy*aren plantak eginez tinko begiratzten zidan mutikoaren irribarre okerra, baizik eta bere benetako irribarrea, handiegia akaso bere aurpegirako.

—Arraioa! —esan zuen Augustusek ahots apalez—. Berezia zara gero.

Gutako ezeinek ez zuen txintik ere esan bilera bukatu artean. Amaieran, eskuak eman behar izan genizkion elkarri, eta Patrickek otoitz egiteari ekin zion berriz.

—Jesu Kristo, gure Jauna, Zure bihotzean bildu gara, *literalki Zure bihotzean*, bizirik diraugin minbizidun hauek. Zuk eta Zuk bakarrik ezagutzen gaituzu guk geure burua ezagutzen dugun bezala. Gida gaitzazu bizitzarantz eta argirantz proba gogor honetan. Otoitz egiten dizugu Isaaken begiengatik, Michaelen eta Jamieren odolagatik, Augustusen hezurrengatik, Hazelen birikengatik eta Jamesen eztarriagatik. Senda gaitzazu, otoi, Zure maitasuna eta bakea senti ditzagun, ulermen oro gainditzen baitituzte. Eta ez ditugu ahazten Zure ondora joandako lagun maiteak: Maria, Kade, Joseph, Haley, Abigail, Angelina, Taylor, Gabriel...

Zerrenda luzea zen. Mundua hildakoz lepo dago. Eta Patrickek bere jario betiberdinarekin jarraitu bitartean, zerrenda orrialde batetik irakurriz, luzeegia baitzen buruz ikasteko, begiak itxi nituen otoitzean murgiltzeko-edo; baina bereziki imajinatzen nuen egunen batean nire ize-

na ere agertuko zela zerrenda horretan, bukaeran, belarriek entzuteari utzia ziotenean.

Patrickek bukatu zuenean, mantra ergel bat kantatu genuen denok batera: GAUR DA GURE BIZITZAKO EGUNIK HOBERENA, eta bilera amaitutzat jo zen. Augustus Waters aukitit altxatu, eta hurbildu zitzaidan. Ibilera okerra zuen, irribarrea bezala. Ni baino dezentez altuagoa izaki, niregandik tarte batera geratu zen, halatan non ez nuen lepoa luzatzeko beharrik izan begietara begiratzeko.

—Nola duzu izena? —galdetu zidan.

—Hazel.

—Ez, izen osoa.

—Hara, Hazel Grace Lancaster.

Beste zerbait esatear zegoela, Isaak hurbildu zitzaigun.

—Itxaron —esan zidan Augustusek hatz bat jasoz, eta Isaakengana jiratu zen—. Esan zenidana baino askoz ere okerragoa izan da.

—Esan nizun penagarria zela.

—Zergatik galtzen duzu denbora gauza hauekin?

—Ez dakit. Baliteke lagungarria izatea.

Augustus lagunari hurbildu zitzaion, entzungo ez nio-la pentsatuz.

—Neska hori ere ohiko taldekidea al da?

Ezin izan nuen Isaaken azalpena entzun, baina Augustusek honela erantzun zion:

—Bai horixe!

Isaaki sorbaldetatik tinko heldu, eta apur bat urrundu zen berarengandik: